



## Etxebizitzarako politika sozialistak: sustapenak eta alokairuari bultzada

*Etxebizitza publikoa, alokairurako laguntzak eta etxe hutsak mobilizatzea; horiek dira Denis Itxaso kontseilari sozialistak gidatzen duen sailak eskualderako dituen gidalerro nagusiak.*

Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen etxebizitza politikak Arabako Errioxan ere islatzen dira, gazte eta familiei begira etxebizitzarako sarbidea erraztu eta eskualdeak dituen beharrei erantzun eman ahal izateko.

Helburu horiekin, Etxebizitza Sailak ikuspegi integral batez lan egiten du hainbat lerrotan: alokairurako etxebizitza publikoa, alokairurako laguntza zuzenak eta etxebizitza hutsak mobilizatzea, etxebizitza duin eta irisgarri baterako sarbidea landa eremuan ere posible izan dadin.

Testuinguru honetan kokatzen da Oionen aurreikusita dagoen etxebizitza publikoaren sustapena: bertan programatuta dago alokairu erregimenekoak izango diren babes publikoko 24 etxebizitza eraikitzea. Ekimen honek ba-

bestutako etxebizitzaren eskaintza handitzen du eskualdean, existitzen den eskari erreal bati erantzuna emanez.

Etxebizitza publikoarekin batera, Gaztelagun programak oinarriko rola jokutzen du. Errenta eta diru sarreren irizpideak handituz, aukera egongo da Arabako Errioxako auzokide gehiagok alokairurako laguntzak izan ditzaten, emantzipazioa erraztuz eta eskaintza mugatua dagoen testuinguru batean etxebizitzarako sarbidea erraztuz.

### **Etxebizitza hutsak**

Modu berean, etxebizitza hutsa mobilizatzeke Bizigune programa tresna eraginkorra izaten ari da. Programa honen bitartez, jabeek beren etxebizitza alokairuan jar dezakete, erabateko berme eta se-

gurtasunarekin. Hala, gazteek, familiek eta adinekoek alokairu eskuragarriak izan ditzakete, eskualdean dagoen etxebizitza parkeaz modu egokiagoaz baliatuz.

Arabako Errioxako errealitateari egokitutako etxebizitza politiken aldeko apustuaren adierazgarri dira neurriok: sustapen berriak, alokairurako laguntzak, eta eskura dauden baliabideak erabiltzea. Helburua da populazioa finkatzea eta aukera berdintasuna bermatzea, bizilekua ezein dela ere.

### **Galdetu zalantzen inguruan**

Edozein zalantza argitzeko, Arabako Errioxako Elkarte Sozialistarekin harremanetan jartzea baino ez duzue, eta saiaturako gara horiek argitzen, eta dauden auzoren artean orientatzen.



## Kultura Saileko neurriak partekatu ditu Del Valek

*"Topaketa hauek aukera ematen digute eskualdearen beharrak lehen eskutik entzun eta hobetzen jarraitzeko", nabarmendu du.*

Ana del Val Kultura eta Kirol foru diputatuak Arabako Errioxako herritarrekin egindako topaketa batean parte hartu du, bere departamentuak eskualdean egin dituen inbertsio eta esku hartze nagusien inguruan hitz egiteko, bai eta datozen hilabeteotan aurreikusia daudenen inguruan ere. Bileran, ondarea kontserbatu eta nabarmentzeko egin diren zenbait lan lerroen inguruan hitz egin da. Modu berean, departamentuak eskualdean sustatu dituen inbertsio nagusiak herritarrekin partekatu ditu foru diputatuak.

### Esku hartze berriak

Testuinguru honetan, eskualdean egin diren parte hartzeetako batzuk azpimarratu ditu Del Valek: Mantible zubiaren berreskuratzea, Guardian dagoen Felix Maria Samaniegoren Jauregiaren zaharberritzea, eta Arabako Errioxako hainbat udalerritan eskola kirola sustatzeko jarduerak edota kultur programazioa.

Bertaratu diren herritarrek egindako proposamenak idatziz jaso ditu Del Valek. Besteak beste, Guardiako Santa Maria elizaren arkupean esku hartzeko beharra, kondentsazio arazoak dituelako. Samaniegoren Jauregiko fatxadan ere esku hartzeko eskatu da, eraikina osorik zaharberritzeko proiektua gauzatzen den bitartean bederen. Departamentua hobekuntza horietan lanean da dagoeneko.

### Herritarren inplikazioa

Kultur eta kirol jardueretan herritarrek izan duten inplikazioa eskertu du Del Valek, eta udalerriekin kolaboratzen jarraitzeko beharra azpimarratu du. Halako topaketek duten garrantzia nabarmendu du ere.

"Hau bezalako topaketekin, udalerrien beharrak lehen eskutik ezagutzeko parada dugu, eskualdearen kultur eta kirol bizitza sustatu eta gure ondarea kontserbatu aldera elkarrekin lanean jarraitzeko", adierazi du foru diputatuak.

## Gobernuaren konpromiso irmoa eskualdearekin

Espainiako Gobernuak onartutako azken neurriek eragin zuzena izango dute gure eskualdean, Arabako diputatu sozialista Daniel Senderosek nabarmendu duenez: lehen sektoreari laguntza zuzenak, nekazaritza gasolioari laguntza, ongarrietarako laguntza, ustiatzietarako finantzazioa eta energia merkatuzko neurriak.

"Herritarrak, industria eta lehen sektorea babesteko ezkutu soziala da". Gure mahastiak, gure upategiak eta lurrari lotutako enplegua defendatzen dituzten neurri zehatzak dira, Arabako Errioxako etorkizuna indartzeko eta aukerak izango dituen landa garapen jasagarri baten aldeko apustua eginez.

## Belaunaldi arteko erreleboari bultzada, Senatuan

Mahastizaintza eta ardogintzan belaunaldi erreleboa bermatu eta sektorean gazteen sarrera errazteko mozioa aurkeztu du Senatuan Paula Somalo Arabako senatari sozialistak.

Senatariak arreta berezia jarri du Arabako Errioxan. Ekimen honekin, lurraldearen erronka sozial eta ekonomiko nagusiengatoka estatu mailako agendan jarri du PSOEk.

Sektoreak bizi duen egoeraz ohartarazi du Senatuan aurkeztutako mozioak: mahatsaren prezioen gainbehera, merkatuen presioa, klima aldaketaren inpaktua eta landa eremuko populazioaren zahartzea. Faktore hauek guztiek lurra, finantzazioa eta kalitatezko enplegu egonkorra eskuratzea zaildu egiten diete gazteei.



## Emakume sozialistak: "Gure eskubideak ez dira ezerezetik sortu"

*Zortzi emakume sozialistak borroka feministaren lorpen eta erronken inguruan hausnartu dute Samaniegon.*

Martxoaren 8aren inguruan Samaniegon bildu dira Arabako Errioxako hainbat emakume sozialista, borroka feministak aurrean dituen erronken inguruan hausnartzeko. "Migrazioa, landa eremuan eta ardoaren sektorean emakumeek duten rola, emakume gazteen etorkizuna, parte hartzea politikan, zaintzak edo etxeko lanak... honen guztiaren bueltan hausnartu dugu, gertueneko emakumeen errealitatea ezagutzuz", azaldu du Arabako Errioxako Elkarte Sozialistako idazkari nagusi Raquel Zabalak.

Mañuetan zinegotzi izan da Be-len Saenz, eta ardo enpresa baten jabea ere bada. Haren esanetan, "denbora luzez sektorean gizonetzkoak gailendu dira, baina orain emakumeak gero eta ardu-ra gehiago hartzen ari dira enologo, mahastizain edo upategien zuzendari gisa, edota sektoreari lotutako proiektuak gidatuz".

Honen adibide da ere Maria Ibañez. Eltziegion zinegotzia da

orain, eta kimikaria, lanbidez. Ibañezek nabarmendu du emakumeak iristen ari direla zuzendaritzetara, jasangarritasun edo ikerketa eta garapenaren alorreko postuetara, edo, bere kasuan bezala, "kalitatearen alorre-ra". Ohartarazi du, ordea, oraindik "kontziliazioan edo etxebizitzarako sarbidean lanean jarraitu beharra dagoela".

### Arabako errioxar berriak

Mañuetan zinegotzi izan den eta ardogintzan diharduen Blanca Casadok emakume etorkinetan jarri du arreta. Azaldu duenez, "duela zenbait urtera arte etorkinak gehienbat gizonetzkoak ziren, baina orain gero eta familia gehiago etortzen ari dira, eta hor emakumeek protagonismo gehiago hartu dute". Nabarmendu du eskualdearen erronka handienetakoa dela emakume hauek modu aktiboan komunitatean parte har dezatela lortzea dela. Norabide horretan, instituzioen

aldetik integrazioarako baliabideak indartu behar direla dio.

Mari Mar Mantas Bastidan hautagaitza sozialistaren burua izan da. "Eskualdeak inguru hurbila, segurua, eta bizi kalitate onekoa" eskaintzen duelakoan dago, beti ere, "komunitatea lagun duela". Hala ere, ohartarazi du are gehiago lan egin behar dela, "oso mugatuak" diren lan aukerak belaunaldi berrien eskura egon daitezen.

Samaniegion zinegotzi izan da Rosa Fresno, bai eta parlamentaria ere. Horrez gain, eskualdeko elkarte sozialistaren idazkari nagusia izan da ere, ETaren terrorismoa pairatu behar izan zen garai batean, gainera. "Gure onena eman behar izan genuen, beti ere balio sozialistetan pentsatuz, berdintasun justu baten alde lan egiten, eta gaizki pasatzen ari ziren pertsonei laguntzen", gogora ekarri du.

### Mugak gaintzeko deia

Oionen zinegotzi izandako Saioa Larrañagak dio espazioak eraiki behar direla gizonetzkoak ere berdintasunaren aldeko borroka-rra lotu daitezen, eta ohartarazi du feminismoaren aurkako diskurtsoak zabaltzen ari direla. Eta, horien bitartez, "saiatzen ari direla orain disfrutatu ditzakegun aurrerapenei prestigioa kentzen". Hori dela eta, deia egin du "mugak gaintzen jarraituzera, emakumeok aukera eta eskubide gehiago izan ditzagun".

Paula Somalo senatariak kuenten sistemaren aldeko aldarria egin du; horrela herritar guztiek aukera izan dezakete ardurazko postuetan egoteko, "emakumeak izategatik gizonetzkoek baino gehiago demostratu behar izan gabe". Zentzu honetan, Somalok nabarmendu du eskubide hauek lortzeko emakume sozialistek egin duten lana. "Hau ez da ezerezetik etorri den zerbait", erantsi du.



## Oion aurrera doa, sozialistek babestu dituzten kontuekin

Oscar Layana Oiongo zinegotzi sozialistak nabarmendu du urte honetan ere Talde Sozialistaren proposamenak udal aurrekontuetan sartu direla. Gauzak hala, Oiongo auzokideen bizi kalitatea hobetuko duten neurriak sartu ahal izan dira onartu diren udal kontuetan. Hala, 2026an, Oioneko bultzada sozialista nabarmena izango du, udalerraren ongizaterata eta aurrerapenera bideratutako neurriekin.

Besteak beste, tokiko merkataritzari eta negozio txikiei laguntzeko plan bat izando du udalerrriak, bai eta aire zabaleko kirol instalazio berriak eta maskotentzako aisialdi gune baten sorrera ere. Modu honetan, udalerriko aisialdi eta bizikidetzako espazioak zabalduko dira.

Bide beretik, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko ekimenak abiatuko dira, bai eta LGTBI kolektiboari laguntzeko neurriak ere, gizarte bidezkoagoa eta inklusiboagoarekiko konpromisoa berretsiz. Azkenik, memoria demokratikoa aitortzeko ekimenak bultzatuko dira ere.

## Lantziegoren etorkizunerako proposamen berriak

Lantziegoko Talde Sozialistak udalerriko zerbitzuak hobetzeko eta herriak aurrean dituen erronken gaineko hainbat neurri proposatu ditu. Besteak beste, berriro mahai gainean jarri du tokiko energia komunitate bat sortzeko aukera. Horri esker, aukera egongo litzateke energia berriztagarriak erabiltzeko, eta hori posible izango litzateke, gainera, auzokideen parte hartzearekin, udal eraikinen estaldurak erabiliz.

Modu berean, bereziki gazteek etxebizitza bat eskuratzeko duten ezintasunaren gaineko kezka agertu dute sozialistek. Norabide horretan, etxebizitza bat erosi edo alokatzeko beste administrazioekin lan egiteko garrantzia nabarmendu du. Besteak beste, bide horretatik landa eremuan populazioa finkatzen lagundu ahal izango da ere.

Udalaren ibilgailuen parkea berritzeko beharra ere gogora ekarri du, gaur egungoak oso zaharkituta daudelako. Horrela, udal zerbitzuen segurtasuna eta eraginkortasuna hobetu ahalko da.



## 5,5 milioi euro abian, turismoa sustatzen jarraitu aldera

Arabako Errioxak erreferentziazko helmuga enoturistiko gisa aurrera jarraitzen du, 'Next Generation' Europako funtsetatik datorren eta Espainiako Gobernuak bultzatu duen 5,5 milioi euro inguruko inbertsioari esker.

Javier Hurtado kontseilari sozialistak zuzentzen duen Turismo Sailaren bidez bideratzen diren funts hauek Kuadrillak kudeatzen ditu, 23 herrien onerako, eta gure eskualdea eraldatzen jarraitzeko helburu garbiarekin.

Egiten ari diren ekimenen artean, honako hauek nabarmentzekoak dira: ardoaren behatokien sarea, udalerrri guztiak lotzen dituzten 290 kilometro baino gehiagoko zikloturismo ibilbideak, ondare historikoaren berreskurapena (harkaitz dolareak, upategien auzoak eta bide berdeak), 40 monumentutan baino gehiagotan LED bidezko argiztapena; baita baliabide berriak ere: olioaren ibilbidea, interpretazio guneak eta espazio arkeologiko irekiak.

Egitasmo hauek eskaintza dibertsifikatzen dute, eskualde osoan turismoaren onurak zabaltzen dituzte eta gure herri guztietan aukerak handitzen dituzte.

